

ADIERAZLEAK

JARDUERAK BIDERATZEKO JARRAIBIDEAK

Prestatu zure saioan proposatuko dituzun jarduerak eta ahozko hizkuntzaren edo elkartrukearen erabilera bideratzeko emango dituzun kontsigna edo jarraibideak

Saiatu kontsigna batzuk (ez denak) izan daitezzen **EDUKIari eta HIZKUNTZari erreferentzia** egiten diotenak.

- **Zein da / zertan datza jarduera? Nola bideratuko da? Zein da ikasleei eskatuko zaien ekoizpen mota?** (adibidez, zerbait laburtzeko, azaltzeko, deskribatzeko, arrazoitzeko, besteentzat ahoz irakurtzeko...)

- Zein **komunikazio alderdiri erreparatu dakioke** jarduera horretan? (Adibidez, hitza hartzeko moduari, informazioaren antolaketa egokiari, ahotsaren eta ahoskeraren erabilera egokiari, hitza besteei ematen jakiteari, besteen hitza (besteek esandakoa) kontuan hartzeari, hitz egiteko txanda itxaroteari...)

- Badaude bereziki landu behar diren **formula edo fraseologia kontuak?** Edo arreta eskaini behar zaion gramatika konturen bat?

Argi formulatu kontsigna edo jarraibide-multzoa. Garrantzikoa da ikasleek uler dezaten irakasleak adierazi nahi duena.

ALDEZ AURRETIK PRESTATU

Ikasleen partaidetza sustatzeko zer egin dezakegu?

- **Ziurtatu ulertu dutela zein den egitekoa** eta horretarako denbora eman: egin galdera irekiak, norbaiti eskatu laburtzeko, ideia nagusiak taldeka bil ditzaten eskatu, zalantzarik baden galdetu.. [banaka edo taldean]. Nolako galderak egingo dira ulermena ziurtatzeko? Zer eskatuko zaie ikasleei?

- Kontsignan aipatutako ideia nagusienak edo jarraibideak jaso nonbait ikasleek argi ikusteko moduan: arbelean, gidaliburuan, horma-irudi baten...

Eta ikasleen hizkuntzaren garapenean laguntzeko, zein jarraibide edo aholku eman dezakegu?

- **Aukeratu** ikasleei aintzat hartzeko eskatuko zaizkien **komunikazio eta hizkuntza alderdiak**, alegia, egingo den jarduerak komunikazioaren zein alderdi garatzea eskatzen duen aurreikusi: galderak egitea, iritzia ematea, deskribatzea, ekintza bat hurrenkera baten adieraztea, hitz teknikoak erabiltzea... Aldiko batzuk izan daitezke, beti guztiak eta berdinak izan gabe.

- Aurreikusi den hori **bihurtu ikasleentzat langai**. Honako antzekoak ahoz **eskatu**: “gogoratu iritzia emateko garaian XXX formulak erabili behar dituzuela”; “zein hitz tekniko dituzue jarduera honetan? Horiek erabiliko dituzue...”; “zuen azalpenak emateko, bereziki, hurrenkera zenbatzaileak erabili: lehenik, bigarrenik...”. Horrez gain, irakasleak dinamikaren segimendua nola egingo duen ere zehaztu dezake ikasleei.

- **Horma-irudiak sortu ikasleekin** batera erabili beharreko hizkuntza-formulak edo fraseologiak begi-bistan edukitzeko.

- Ikasleek edo irakasleak egitura egokiak **birformulatuko** dituzte.

Horietatik zeintzuk hartuko ditugu aintzat ebaluazioan? Nola? Adibidez...

- Goazen guztion artean (irakaslearen laguntzarekin) baloratzera gertatu dena...
- Aurrez landutako egiturak baliatu dira? Zeintzuk?
- Ikasleen ekoizpenetan perpaus osoak erabili dira?
- Ereduari jarraitu zaio? Adibide berriak agertu dira?
- Testuak eskatutako hitz teknikoak baliatu dira?

ERABAKI UNE BAKOITZEAN

Zein izango den irakaslearen parte hartze maila

zenbat hitz egingo duen, zertarako parte hartuko duen, zein unetan egongo den isilik...

Zein izango den ikasleen parte-hartze maila

ikasle jakin batzuen (irakasleak aurreratzen duenean...) partaidetza (zer esango duten edo eskatuko zaien esateko, nola esango duten...).

Zein arau finkatuko diren parte hartzeko

eskuak altxatuta, lehenik taldetan eta gero taldeko ordezkariak, zerrendaren arabera, izendatuz, borondatezko partaideak proposatuz, txandakatuz... ahalegindu partaideak ezberdinak izan daitezen.